




booktegi jaialdia

2024

URRIAK 26



antolatzailea:



BOOKTEGI
Euskal literatura denon eskura

laguntzaileak:



Usurbilgo Udala

an@za
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

noqua

booktegi jaialdia

Hirugarrenetik ospatzen dugu Booktegi webgunearen besta. Poesia edukiko dugu aipagai, nobela edota teatroa. Behar bada bertsoa ere, hitz idatziaren zein erranaren alorrak muga gabeak direlako.

Taula gainetan, belaunaldi berrietako idazleak bai eta artista zohituagoak ere agertuko dira, gai garaikideak jorratzeko. Liburu baten egiteko mila esku txiki premiazkoak diren bezala, gure baitan dagoen irakurle senaren kemen-pindarrak emanen ditugu batera euskararekiko sua (ber)pizteko.

– Itxaro Borda

booktegi

Booktegi lagunarte bat da, koloretako goxokiz betetako poltsa, jolas-parke bat, maitale berriak topatzeko sauna, lurrean etzanda zerura begira egoteko belardi bat, lapur-saldo baten kobazuloa. Dena euskaraz; dena eskura; dena irakurtzeko, entzuteko, ikusteko, arnasteko; eztena. Booktegi: dena eta izango dena, denona.

– Ana Galarraga

elkarri irakurriz



Gai baten harira hiru idazlek ipuin bana idatziko dute. Ipuinak haiek artean eta booktegi.eus-en partekatuko dituzte, elkar irakurri ondoren ipuinei buruz solasaldi ireki batetan parte hartzeko... Beste hiru idazlek gauza bera egingo dute beste gai baten harira.


Eta horrela, hariak hari, korapilatuz, elkar irakurriz, partekatuz, elkar solastuz arituko dira, bertaratu nahi duten guztiekin batera.

– Maitane Perez

poesia itzulera



Euskal poema bat aukeratu, eta beste batek aukeratutakoa –edo zuk hautatutakoa– irakurriaz osatuko dugu itzulera. Eman izena Sutegi Liburutegian, eta zure poema biblioteka@usurbil.eus -era bidali.



geuretik sortuak



Udalbiltzak Geuretik Sortuak beka antolatu du bigarrenenez. Euskal Herrian geuretik kontatzea eta geure historiak sortzea du helburu, euskaratik eta euskaraz, lau diziplina artistikoren bidez: komikigintza, literatura, antzerkigintza eta zinemagintza.

udarregiko poesia dramatizatua



Ikastolako LH5. mailako ikasleek olerki errezitaldia eta ipuinen irakurketa egingo dute taldeka, narratzaile eta pertsonaia ezberdinen ahotsak dramatizatuz. Ahozko hizkuntza indartzea dugu helburu, landutako teknika eta baliabide ezberdinak ardatz hartuta.

hamalau



Hamalau garren solairua. Terraza bat. Gizon bat dago bertan. Notarioa da eta bere bezero baten zain dago. Hain zuzen ere, bezero horren buru-hilketa edo suizidioa egiaztatzerako joan da. Suizida, baina, berandutzen ari da...

– Lutxo Egia

hitzak aurrekari




Zein da ba gure ametsa? Zerbait ona idaztea, sortzea, egitea... Zertarako idatzi? Zertarako sortu? Zertarako borroka egin? Zertarako jaten eman halako proiektu zoragarriari? Zergatik irakurri gure lagunek idazten dutena? Zergatik elkar balidatu, elkar kritikatu, elkarri propaganda egin, elkar goraipatu? Ezin garelako bizirik iraute hutsera mugatu.

- Ainhua Urien

habiak taldea



Hiru hari eta hiru ahots batera. Tradiziotik abiatuta sorkuntza berriak jotzen dituzte, eta taldearen musika entzutean mundua mugimenduan eta jendeeen soinua hurbiletik sentitzen dugu. Kafira batean bagina bezala, amaren besoetan lokartzen ginelarik bezala. Egoera biziki berezi horretan gizadiaren barnatasunean murgiltzeko.



goiza

zumarte musika eskolan

anfitrioiak: Itxaro Borda

10:30 *elkarri irakurriz (mailegua)**

- Maddi Ane Txoperena
- Goizalde Landabaso
- Ainhua Urien

11:30 *poesia itzulera*

12:30 *geuretik sortuak*

13:30 *elkarri irakurriz (oparia)**

- Maialen Akizu
- Oier Guillan
- Nerea Loiola

* moderatzailea: Maitane Perez




arratsaldea

sutegi kultur etxean

16:30 *poesia dramatizatua*

· Udarregi Ikastola




17:30 *hamalau*

· Mikel Martinez

18:00 *hitzak aurrekari*

· Ainhua Urien
· Oihana Iguaran
· Iruri Altzerreka



19:00 *kontzertua*

· Habiak Taldea



20:00 *dantzaldia frontoian*





· Esther Sound Sister DJ



booktegi jaialdia

2024

URRIAK 26



antolatzailea:



BOOKTEGI
Euskal literatura denon eskura

laguntzaileak:



Usurbilgo Udala

an@za
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

noqua